Kontrakoa pentsatu ohi den arren, 20ko eta 30eko hamarkadetan **emakumeak aintzat hartu ziren kulturaren eta literaturaren eremuan**.

Espainian, emakume idazle asko irakurriak eta argitaratuak ziren, haien lanek kritikaren arreta jasotzen zuten, eta haietako asko literatur kritikari gisa ere aintzat hartzen zituzten.

Adibidez, 1928an "El secreto de los poetas" (poeten sekretua) izeneko atala abiatu zuten **La Gaceta Literaria** aldizkarian. **Elkarrizketatutako lehen egilea Ernestina Champourcin izan zen**. Horrek **inbidia piztu zion Federico García Lorcarei**, eta poema hau idatzi zion aldizkariko zuzendari Melchor Fernández Almagrori:

"Uste dut jada ez nauzula estimatzen.
Ai, Melgarejo banintz!
Ai, Ernestina banintz!
Ai, Maruja Mallo banintz!"

Hala ere, zailtasunak ere izan zituzten.

- Bizitza intelektuala kafetegi, solasaldi eta antzeko **kultur giroetan** garatzen zen, eta halako eremuak **gizonezkoentzako gunetzat jotzen ziren**. Horregatik, **emakumeek gune propioak sortu behar izan zituzten, Lyceum Club Femenino adibidez, beren bizitza kulturala eta intelektuala garatzeko**.
- Beste kasu batzuetan, **senarrekin lankidetzan aritu** ziren lanak sortzen eta itzultzen, baina beren izenak ez ziren agertzen lan horien sinaduran.

Hala ere, benetako arazoa geroago etorri zen. **Gerra Zibilean**, emakume idazleen belaunaldi hori sakabanatu egin zen, eta diktadura frankistaren garaian **haietako asko isilarazi edo zentsuratu zituzten**. Ondoren, kritikari eta historialariek ere emakumeen izenak isildu zituzten, eta **haien ondarea ezabatu.**

Azken hamarkadetako ikerketa- eta dibulgazio-lanei esker, **beren garaian izan zuten garrantzia eta bete zuten zeregina aitortu dira**.

Madril, 1930eko hamarkada. **Lyceum Club Femeninoaren gelak bilgune bat baino askoz gehiago izan ziren**: han egiten ziren hitzaldiak, irakurketak, kontzertuak eta erakusketak, eta adiskidetasun, elkarlan eta sorkuntza sareak josten ziren garaiko kultur bizitzari lotutako emakumeen artean. **Kluba, horrela, emakumeek bizitza intelektual eta artistikoan parte hartzeko eta elkartzeko gune bihurtu zen**.

Lyceum Club Femeninoaren gela bat.



MIRETSIAK ETA ZENTSURAT